

ASTE NAGUSIA  
semana grande  
—2014—  
DONOSTIA  
san sebastián  
ABUZTUA/9-16  
agosto / 9-16

donostiakultura.com

**SUPER  
AMARA**





# Donostiako Aste Nagusiko zezensuzkoen entzierroa:

## 30 urte, 31 edizio

## 1984 – 2014

### Zezensuzkoa Donostiako jaietan

---

Bere jatorriaz irizpide diferentzia dagoen arren, zezensuzkoaren irudia tipikoa da Donostian. Baieztapen hori Marcelino Soroa Lasa jaunak XIX. mendearen amaieran idatzitako glosa sinpatikoak berresten du:

*“Hiri koxkero honetako koxkerokeriarik koxkeroenen artean, leku nagusia du zezensuzkoak, haren izen hutsak pozez taupadaka jartzen baititu bihotz joxemaritarrak”.*





Tokiko historialariek, berriz, zezensuzkoaren irudiak gure jaietan duen jatorriari buruz hitz egitean, adierazten dute piroteknia forma hori Txinan jaio zela, eta ohitura zela bolbora mugimenduan ziren zaldi, erraldoi, dragoi eta gazteluen formapean erretzea.

XIX. mendearen hasieran haraino bidaiatzen zuten marinel donostiarrek ohituraren berri izan eta gure hirira inportatu zuten.

Itsasgizon haiek egindako deskribapenetan oinarrituta, bolborazale batek zezen formako egitura bat armatu zuen arrain saski batzuk, hiltegitik hartutako adar batzuk eta oihal zati ilun bat erabilita, dagozkion "petardoez" gain, eta gaur egun "zezensuzko" esaten duguna sortu zuen, izen donostiar peto-petoa, Iriyarena doinua bezala, historikoki hura agertu aurretik jotzen zena programatzen zen edozein jaitan.



Gaur egun, eta 1984 ezker, zezensuzko donostiarra taldean (6 zezenekoan) irtetzen da, Aste Nagusiko jaietan zehar gauero programatzen den su artifizialen ikuskizuna amaitutakoan. Haren egitura beira zuntzezkoa da orain eta forma zezenarena, eta harekin batera doaz ibilbidean unaiak edo zaldimutilak, hura etortzeko zain dagoen jendearenagana hurbiltzera bultzatzen dutenak, korrikaldia San Ferminetako estilo garbian egiteko.





Aipu asko egin ditzakegu zezensuzkoaren irudia gure jaietan integratu zenetik, eta horietako batzuk jaso ditugu hemen, haren izaera tradizionala eta gure jai kulturalen dituen erroak frogatzeko:

- 1) 1812an, bidaiari frantses batek bere bidaia koadernoan idatzi zuen Donostiako inauteri jaia “gizon batek bizkarrean su artifizialez beteta daraman idi larri baten ikuskizunarekin” amaitzen zela.
- 2) Gure udaletxeko udal artxiboetan 1839ko uztailaren 3ko faktura bat dago, eta haren bidez Antonio Esnaola jaunak kobrezko 346 erreal jaso zituen 2 zezensuzkoren eta su artifizialen 3 gurpil birakariren truke.
- 3) 1875eko abuztuaren 15ean, jaiegun handia hirian, programatutako jaiak hauek izan ziren: sokamuturra, zezensuzkoa, musika banda eta su artifizialak.
- 4) Donostiako lehen Aste Nagusitzat (1876) jo denean “cecen-tzusco” bat korritu zen abuztuaren 16an.
- 5) 1879ko abuztuaren 10ean, “El Urumea” egunkariak hauxe zioen zezensuzkoaren ikuskizunari buruz: “Donostiako ikuskizun original eta eksklusiboa da, aurreko urteetan kanpotarren arreta erakarri duena, harrituta ikusi dutenean jende pilatuaren artean gizonek gidatutako zurezko zezen bat korrika, abere bizigabearen gorputz osotik suzko jasa zeriona, kalterik egiten ez zuena baina efektu harrigarrikoa. Une jakin batean, zezensuzkoa oholtza baten gainean jartzen dute, eta aldi berean hasten dira gaztelu hegalaria, su iturriak, etab. zurezko piztiaren bekokian behar bezala prestatuta”.



- 6) 1879ko abuztuaren 14an, El Urumea egunkariak honela zioen aurreko egunean zezensuzkoak egin zuen irteerari buruz: *“bart (cecen-susco) tradizionala korritu zen Zurriola pasealekuan, egun hauetan nagusi den animazioarekin. Joko asko eman zuen, zurezko zezenaren bizkar gainean jarritako kartutxoak ugariak zirelako eta, hortaz, luzaroan paseatu zuten pasealekuko kale guztietan. Ikuskizun hau lehen aldiz ikusi zutenek harridura handiz ikusten zuten deabruzko zezena haren atzetik zebilen jendearen artean korrika, txinparta kaltegabeen jasa bat jasoz”.*





- 7) 1881ean, Serafin Barojak “Iriyarena” idatzi zuen zezensuzkoa laudatzeko:

“Xexenak dira  
Beltx-beltxak dira,  
Harrapatzen bazaitu  
Bertan, bertan,  
Hilko zaitu.

.....

O Donostiko zezen suzkoa izan zaitez zorionekoa!

Irtena da zezena arkupetik  
Txingarra daiola atzealdetik  
Danbadaka  
Ta jiraka  
Jendeen tartetik

Zalapart hartan zenbat nahaspil  
Zenbat karraxi, zer iskanbil  
Itsumuka  
Trunbuiluka  
Jende dena dabil

O, zu, zezen onen autorea  
Izan zaitez gloriz betea!

.....”

- 8) 1886an, Juan Combak zezensuzkoaren irudi bat egin zuen Donostiako jaietan, eta testu hau jasotzen du: “zezensuzkoa: antzina-antzinako herri jostaketa Gipuzkoan: bizpahiru gizonen zezen itxura duen zumezko saski handi bat eramaten dute, kohete motzez, eskorgez... beteta, eta haiek korrika egiten dutenean aldi berean lehertu eta korrikaldi biziak sortzen dira jendartean...”

- 9) 1895ean, Serbiako Alejandro I.a erregea, oporretan Biarritzen zela, Donostiara hurbildu zen pilota partidak eta zezensuzkoa ezagutzera.

- 10) XX. mendean, 1913an, gure hiria erre eta berreraikitzearen mendeurrena ospatzeko onartutako ekintzek diru sail bat jasotzen zuten aurrekontuetan jarduera hauetarako: “*L) Su artifizialak eta zezen-zuskoa*”.

- 11) 1925ean, Donostiako El Diariok haxe jaso zuen Veraneo Donostiarra atalean, abuztuaren 15eko argitalpenean: 14an “zezensuzko bat korritu zen, su artifizial ugari izan zen eta, hitz batez, gaua poztasunezkoa izan zen, poz handikoa”.

- 12) 1946an, tokiko egunkariak, urtarrilaren 19an nabarmentzen duenez, “zezensuzkoarekin eta Gaztelubideko danborradarekin gaur gauean hasiko dira Donostiako zaindariaren jaiak”.





- 13) 1975ean, Donostiako zaindariaren jaien egitarauak “Arratsaldeko zortzietan zezensuzkoa Alde Zaharreko kaleetan zehar” proposatzen du.
- 14) 1984ko abuztuaren 13an, urteekin Donostiako Aste Nagusian erritu bihurtu den ikuskizuna hasi zen: zezensuzkoen entzierroa. Sei zezensuzko hiriko kaleetan ibiltzen dira Aste Nagusiko gaueroko ikuskizun piroteknikoa amaitutakoan, jendetzaren zalapartarako.
- 15) Urte horietatik aurrera, Aste Nagusiko egun guztietan, su artifizialen ondoren, 6 zezensuzkok Easo-Askatasunaren hiribidea-Miramar-Hernani-Boulevarda ibilbidea egiten dute.

Horrekin guztiarekin, gure ustez, 2014. urte honek ospakizun urtea izan behar du gure zezen talde handiarentzat: ezagutza urtea, gure jaien historian duen garrantzia aditzera ematekoa.



## Ospakizun berezi bat gertakari desberdin baterako

2014. urte honetarako, programa berezia egitea aurreikusi dugu zure zezensuzko talde handiaren 30 urteak ospatzeko. Gure entzierro bereziaren osasun ona ospatzeko.

Hau da gure proposamena:

### Aste Nagusiaren gau guztietan, su artifizialen ondoren

Zezen taldearen irteera Londres hoteletik, Boulevarderaino iritsi arte. Sua ez da ohikoa izango (laranja-hori kolorekoa): urdina eta zuria izango da, Donostiaren bere-berezko koloreak.





## Abuztuaren 16a:

10.00 - 20.00 ZEZENSUZKO DESBERDINEN ERAKUSKETA GIPUZKOA PLAZAN. 30 ZEZENSUZKO IKUSGAI BERE HISTORIAREKIN.

11.00 - 13.00 PHOTOCALL: ZEZENSUZKOA BESTE MODU BATERA BIZITZEKO

**Nik ♥ zezensuzkoa**

20.00 SUZIRIK GABEKO ZEZENSUZKOEN KALEJIRA BOULEVARDETIK LONDRES HOTELERAINO, DULTZAINEROEN LAGUNTZAREKIN.

SUEN ONDORENGO ENTZIERROKO IBILBIDEA ALDERANTZIZ EGINGO DUTE GAUEKO IRTEERA PUNTURAINO.

IRIYARENA DOINUAREKIN BATERA ZEZENSUZKO-TALDEAK DANTZAK BURUTUKO DITUZTE (SUZIRIRIK GABE).

21.00 SENIDETZEKO AFARIA

23.30 DONOSTIAKO ZEZENSUZKO-TALDEAREN 30.URTEURRENAREN OSPAKIZUNA: 30 ZEZENSUZKO, BATA BESTEAREN ATZETIK 2014KO ASTE NAGUSIARI AMAIERA EMATEKO. OHIKO IBILBIDEA.



Laguntzailea:

**SUPER AMARA**





## Zezensuzkoen entzierroa: funtsezkoa Aste Nagusiaren programan

Zezensuzkoen entzierroak parte-hartzaile eta ikusle ugari biltzen ditu Aste Nagusiaren gau bakoitzean. Haiek, su artifizialen ondoren, lasterketari hasiera ematen dion txupinazoaren zain geratzen dira.

Jende askok “korritzen” du zezensuzkoa. Hala, belaunaldi arteko parte-hartze dinamika bat ezartzen da, beste jai jarduera batzuetan agertzen ez dena: gurasoak neska-mutilekin, eta bilobei zezena nola “korritu” erakusten dieten aitona-amonekin... familia partaidetzako ikuskizun bikaina, nerabe eta gazterik falta ez duena iskinak eta korrikaldiak egiten, zaldimutilak (artzainak) euren makilekin atzean dituztela, zezenek inolako ezbeharririk izan ez dezaten.

Zenbakiez ari bagara, esan genezake su artifizialen gazteluak ikustera Kontxatik abiatzen diren lagunuen ehuneko handi bat biltzen duela zezensuzkoak. Gainera, ibilbide osoan zehar haiekin bat egiten dute pirotekniaz gozatu ondoren hondartzatik irteten direnek, baita ikuskizuna bizitzeko eta Aste Nagusiko beste jai esparru batzuetarako bidean lasterraldi bat egiteko hurbiltzen direnek ere.

Hala, entzierroaren parte-hartzea/ikusaldia kuantifikatzeko, zenbaki hauek eman genitzake: **15.000** eta **20.000** lagun bitartean Aste Nagusiaren gau bakoitzean (hau da, **120.000** eta **160.000** lagun bitartean aste osoan)






# El encierro de toros de fuego de la Semana Grande de Donostia / San Sebastián: 30 años, 31 ediciones 1984 – 2014

## El toro de fuego en las fiestas donostiaras

---

Aunque hay disparidad de criterios sobre su origen, la figura del zezen-suzko no deja de ser típicamente donostiarra. Refrenda esta afirmación la simpática glosa que a finales del S. XIX escribiera D. Marcelino Soroa Lasa:

*“Entre las coshquerías más coshqueras de esta coshquera ciudad, ocupa preeminentemente lugar el zezen-suzko o toro de fuego, a cuyo solo nombre palpitan de gozo los corazones joshemaritarras”.*





Por su parte, los historiadores locales, al hablar sobre la procedencia de la figura del toro de fuego en nuestras fiestas, indican que esta forma de pirotecnia nació en China donde era costumbre quemar la pólvora bajo figuras de caballos, gigantes, dragones y castillos en movimiento.

Marinos donostiarra que a principios del S.XIX realizaban viajes hasta allá conocieron la costumbre y la importaron a nuestra ciudad.

A partir de las descripciones hechas por aquellos navegantes, un aficionado a la pólvora armó una estructura con forma de toro sirviéndose para ello de unas cestas de pescado, unas astas tomadas del matadero y un pedazo de tela oscura, además de los correspondientes “petardos”, dando origen a lo que hoy denominamos “zezensuzko”, nombre típicamente donostiarra, como lo son los sones del Iriyarena que históricamente precedía a su aparición en cualquiera de las fiestas en las que se programaba.



Actualmente y desde el año 1984 el zezen suzko donostiarra sale en manada (compuesta por 6 toros) una vez finalizado el espectáculo de fuegos artificiales que cada noche se programa durante las fiestas de Semana Grande. Su estructura es ahora de fibra de vidrio y su forma la de un toro al que acompañan en su recorrido los pastores o monosabios que les incitan a acercarse al público que espera su llegada para realizar su carrera al más puro estilo sanferminero.

Son muchas las citas que podemos aportar desde la integración de la figura del toro de fuego en nuestras fiestas, recogemos aquí algunas de ellas con la intención de demostrar su carácter tradicional y su arraigo en nuestra cultura festiva:



- 1) En 1812 un viajero francés anotaba en su cuaderno de viaje que la fiesta de Carnaval de San Sebastián terminaba “con el espectáculo de una piel de buey llena de fuegos artificiales la cual es llevada a cuestras por un hombre”.
- 2) Consta en los archivos municipales de nuestro ayuntamiento una factura del 3 de julio de 1839 por la que D. Antonio Esnaola percibe 346 reales de vellón por 2 toros de fuego y 3 ruedas giratorias de fuego artificial.
- 3) En 1875, el día 15 de agosto, fiesta grande en la ciudad, los festejos programados fueron: sokamuturra, zezensuzkoa, banda de música y fuegos artificiales.
- 4) En la que se ha considerado la primera Semana Grande de Donostia (1876), se corrió un “cecen-tzusco” el día 16 de Agosto.
- 5) El día 10 de Agosto de 1879 el rotativo “El Urumea” indica sobre el espectáculo del toro de fuego: “es un espectáculo original y exclusivo de San Sebastián, que ha llamado la atención en años anteriores a los forasteros que han visto sorprendidos correr entre la apiñada gente un toro de madera conducido por hombres, despidiendo de todo el cuerpo del inerte animal una lluvia de fuego tan inofensiva como de sorprendente efecto. En un momento dado, colocan el sesen-susco sobre un tablado, comenzando al tiempo los castillos voladores, fuentes de fuego, etc., preparados convenientemente en la testuz del bicho de madera”.



- 6) El día 14 de Agosto de 1879 El Urumea comenta sobre la salida del zezensuzko el día anterior: “anoche se corrió en el paseo de la Zurriola el tradicional (cecen-susco) con la animación que reina en cualquier diversión de estos días. Dio mucho juego porque eran muchos los cartuchos colocados en la espalda del toro de madera y por tanto pasearonle largo rato por todas las calles del paseo. Los que por primera vez presenciaron este espectáculo, veían con no poco asombro, correr al diabólico toro por entre la apiñada gente que le perseguía, recibiendo una lluvia de chispas inofensivas”.



7) En 1881, Serafin Baroja escribe “Iriyarena” para loa del zezen-suzko:

“Xexenak dira  
Beltx-beltxak dira,  
Harrapatzen bazaitu  
Bertan, bertan,  
Hilko zaitu.

.....

O Donostiko zezen suzkoa izan zaitez zorionekoa!

Irtena da zezena arkupetik  
Txingarra daiola atzealdetik  
Danbadaka  
Ta jiraka  
Jendeen tartetik

Zalapart hartan zenbat nahaspil  
Zenbat karraxi, zer iskanbil  
Itsumuka  
Trunbuiluka  
Jende dena dabil

O, zu, zezen onen autorea  
Izan zaitez glori-z betea!

.....”

8) En 1886, Juan Comba realiza una ilustración sobre el toro de fuego en las fiestas de San Sebastián en la que se recoge el siguiente texto: “el zezen-suzko o toro de fuego: diversión popular antiquísima en la provincia de Gipuzkoa: dos o tres hombres conducen un gran cesto de mimbres que tiene la apariencia de un toro, el cual está lleno de cohetes cortos, carretillas,... y cuando aquéllos corren y estallan a la vez, prodúcense en la concurrencia vivas carreras...”

9) En 1895 el rey Alejandro I de Serbia, estando de vacaciones en Biarritz, se acercó a Donostia para conocer los partidos de pelota y el toro de fuego.

10) Ya en el S.XX, en 1913, la celebración de los actos aprobados para conmemorar el centenario de la quema y reconstrucción de nuestra ciudad recoge en sus presupuestos una partida para “L)Fuegos artificiales y zezen-zusko”.

11) En 1925, El Diario de San Sebastián recoge en su publicación del día 15 de agosto, en el apartado Veraneo Donostiarra que el día 14 “se corrió un toro de fuego abundaron los fuegos artificiales y, en fin, la noche fue de alegría, de suma alegría”.

12) En 1946 el periódico local, en su edición del 19 de enero, destaca que “con el zezen-suzko y la tamborrada de Gaztelubide empiezan esta noche los festejos patronales donostiarra”.

13) En 1975 el programa de las fiestas patronales de San Sebastián plantea “a las ocho de la tarde, Ze-Zen-Suzko o toro de fuego, por las calles de la Parte Vieja”.



14) El 13 de agosto de 1984, se inicia el espectáculo que, con los años, ha pasado a ser un rito en la Semana Grande donostiarra: el encierro de toros de fuego. Seis zezen zuskoak recorren las calles de la ciudad tras el espectáculo pirotécnico de cada noche de la Semana Grande para jolgorio de la multitud.

15) A partir de ese año, todos los días de la Semana Grande, tras los fuegos artificiales 6 toros de fuego realizan el recorrido Easo-Avenida de la Libertad- Miramar-Hernani-Boulevard.

Con todo ello, creemos que este año 2014 ha de ser un año de celebración para nuestra manada, un año de reconocimiento y constatación de su importancia en nuestra historia festiva.



## Una celebración especial para un evento diferente

Este año 2014, hemos previsto la realización de un programa especial para celebrar los 30 años de nuestra manada de toros de fuego. Para celebrar la buena salud de nuestro particular encierro.

Esta es nuestra propuesta:

## Todas las noches de la Semana Grande, tras los fuegos artificiales

Salida de la manada desde el Hotel de Londres y recorrido hasta el Boulevard. El fuego no será el habitual (anaranjado-amarillo), será azul y blanco, colores donostiarra por antonomasia.





## El día 16 de agosto

10.00 - 20.00 EXPOSICIÓN EN LA PLAZA GIPUZKOA DE 30 TOROS DE FUEGO DE DIVERSAS PROCEDENCIAS, CADA UNO CON SU HISTORIA

11.00 - 13.00 PHOTOCALL: PARA VIVIR EL TORO DE FUEGO DE OTRA MANERA.

## I ♥ zezensuzkoa

20.00 PASEO DE LOS TOROS DE FUEGO ACOMPAÑADOS POR DULZAINEROS DESDE EL BOULEVARD HASTA EL HOTEL DE LONDRES.

REALIZARÁN A LA INVERSA EL RECORRIDO DEL ENCIERRO NOCTURNO, HASTA EL PUNTO DE SALIDA.

LOS TOROS DE FUEGO (SIN CARGA PIROTECNICA) BAILARAN AL SON DE "IRIYARENA".

21.00 CENA DE HERMANAMIENTO DE PORTEADORES DE TOROS

23.30 CELEBRACION DEL 30 ANIVERSARIO DE LA MANADA DE TOROS DE FUEGO DE DONOSTIA / SAN SEBASTIAN:

ENCIERRO DE 30 TOROS DE FUEGO, SALIENDO UNO TRAS OTRO, PARA DAR FIN A LA SEMANA GRANDE 2014. RECORRIDO HABITUAL.



Colabora:

**SUPER AMARA**





## El encierro de toros de fuego fundamenal en el pograma de la Semana Grande

El encierro de toros de fuego congrega cada noche de la Semana Grande a un número importante de participantes y espectadores que, tras los fuegos artificiales, permanecen a la espera del chupinazo que marca el inicio de la carrera.

Son numerosas las personas que “corren” el toro de fuego, estableciéndose una dinámica de participación intergeneracional que no se da en otras actividades festivas: padres y madres con niñas y niños, abuelos y abuelas que enseñan a sus nietas y nietos a “correr” el toro,... todo un espectáculo de participación familiar en el que no faltan los grupos de adolescentes y jóvenes que disfrutan realizando quiebros y carreras perseguidos por los monosabios (pastores) que con sus varas evitan que los toros sufran ningún percance.

Si hablásemos de números, podríamos decir que el toro de fuego aglutina a un gran porcentaje de las y los espectadores que acuden a ver los castillos de fuegos artificiales desde La Concha, nutriéndose a lo largo de su recorrido de quienes tras disfrutar de la pirotecnia los alcanzan al salir de la playa y de quienes se acercan a contemplarlos y a echar una carrera en su camino hacia otros espacios festivos de la Semana Grande.

Así, podríamos cuantificar la participación/contemplación del encierro entre **15.000** y **20.000** personas cada noche de la Semana Grande (esto es entre **120.000** y **160.000** personas durante toda la semana).



